

ZER DA OFIZIOKA ARITZEA?

Bertsolaritzan, ofizioka jardutea hauxe da: egoera baten aurrean, bi pertsonaia aritzea elkarriketan edo eztabaidan.

Ikus ditzagun ofiziokako saio eder batzuk!

ELKARREN BEHARREAN

Ofizioka ari garenean, bi bertsolarien artean eraiki behar dugu diskurtsoa.

Bi buruko herensugea bagina bezala, elkarrekin egin behar dugu bidea pausoz pauso, argudioz argudio, adar jotzez adar jotze.

Ofizioka ari direnean, elkarren beharra dute bi pertsonaiek, aurrera egingo badute.

PERTSONAIA ANTAGONIKOAK

Batzuetan, egoera baten aldekoak eta kontrakoak agerian jar daitezten, bi pertsonaia antagoniko (edo aurkako) jartzen dira jokoan.

Pertsonaia batek egoeraren alde ona ager dezan, eta besteak alde txarra.

Batek alde ederra, besteak zatarra. Batek ordena, besteak kaosa.

Bakoitzak mutur banatatik begiraturaz, bien artean gai horren begirada osoagoa emanez publikoari.



Asma dezagun zein den pertsonaia bakoitzaren antagonikoa!

KATUA /

EGUZKIA /

MAITASUNA /

EGIA /

BELDURRA /

POLIZIA /

IRAKASLEA /

MEDIKUA /

SALTZAILEA /

SOROSLEA /